MUTRIKUKO HERRI-ALDIZKARIXA
2018ko uztaila - 185. zenb.

KALAPUTXI

Jai zorion tsu ak

MALENETAN PRESO ETA IHESLARIAK GOGOAN

DENAK ETXERA!



GUDARIAK DIRELAKO

AMNISTIA III



>Uda sasoia gurean
>Gotzon Eizagirrerekin eguraldi kontuak
>Umetako hondartza haura
>Mutrikuko kronikak atzerako begiradaz
>Euskaraldia eskualdean ere bai

Maialen Naberan Uranga

"MUTRI"

"Alaves gloriosas" taldeko atezaina

- Etxea apaintzeko proiektuak
- Altzariak
- Sukaldeak
- Leiho mistoak (egurra eta aluminioa)

Ondo pasatu Malen jaixak!

AB AROZTEGIA

BARRUETABEÑA Hnos, S.A.

Errenteria auzoa, z/g · ONDARROA

Tel.: 94 683 18 07 · e-posta: barrueta@barruetabena.com

Igualatorioarekin eta
Osakidetzarekin
lan egiten dugu

Audioprotesista
egunero zentroan
Audiometriak doan

OPTIKA VITORIA

OPTIKA • AUDIFONOAK

ERRIBERA 16 • 48700 ONDARROA • 946134138 • mvitoria@cnoo.es

Telefonoak

Osasuna

Larrialdiak	943 46 11 11
Anbulatorioa	943 60 43 00
DYA zentrala	943 46 46 22
Mendaroko ospitala	943 03 28 00

Botikak

Lasuen-Elezgarai	943 19 50 26
	626 61 13 92
Lon Apraiz	943 60 32 50
	630 05 50 97
Amaia Zalduegi	669 26 22 01
Hiart Burgoa	667 33 88 90
Etxeberria (Elgoibar)	943 74 01 40
Garitaonaindia (Elgoibar)	943 74 11 77
Yudego (Elgoibar)	943 74 12 93
Barrenetxea-Etxeberria (Elgoibar)	943 74 12 77
Idoia Lafuente (Eibar)	943 25 44 10

Udala, zerbitzuak...

Udaletxea	943 60 32 44
Udaltzaingoa	943 60 70 48
	679 16 25 00
Gizarte Ongizatea	943 19 50 81
Anai Arte	943 60 34 10
Zaharren Egoitza	943 60 38 71
Eguneko Zentroa (Deba)	943 19 23 60
Turismo Bulegoa	943 60 33 78
Bake epaitegia	943 60 70 49
Kiroldegia	943 60 31 75
Liburutegia	943 60 41 82
Miruaitz pilotalekua	943 60 41 91
Ur Partzuergoa	902 30 22 22
Zakarrak eta traste zaharrak	943 70 07 99
Posta zerbitzua	943 60 30 44

Irakaskuntza

Goizeko Izarra Ikastola	943 60 36 75
San Miguel Ikastetxea	943 60 31 95
Mutrikuko Institutua	943 60 35 45
Udal Euskaltegia	943 60 30 94
Udal Musika Eskola	943 60 37 80
Haurreskola publikoa	943 60 41 19

Garraio zerbitzuak

ANSOLA taxia	638 67 23 83
ANTON taxia	666 22 19 99
XABI taxia	656 28 90 26
Lurraldebus	943 41 52 08
Pesa Autobusak	902 10 12 10
BizkaiBus	902 22 22 65
EuskoTren	902 54 32 10
Loiuko Aireportua	905 50 50 05

Bestelakoak

Parrokia	943 60 39 87
Bikario etxea	943 60 39 88
Santa Catalina eleiza	943 60 32 00

Ibon Aginaga Imaz

ESKERRIK ASKO, *KRAUSSK*!

2008ko udaberria izango zen zorioneko dei hura jaso nuen egun (bizitza goitik behera aldatu zidan deia izango zen, ziurrenik). Gasteizen ikasten. Astelehenero bezala pisukideekin asteko erosketak egiten genbiltzala, telefonoa jotzen hasi eta... "*Aupa, Ibon! Aritz nai, mutrikuarra. Gogoratzen zea... Musika talde bat sortu nahixan gabiltz eta ia gurekin gitarria jotzea animauko ziñaken... Lau lagun goz, ez dakau idea askorik, baina kriston gogua eta ilusiua dakau, eta egurra emateko amorratzen goz*".

Beste bi taldetan nenbilen une horretan, baina urte batzuk lehenago ezagututako lagun haren deiak segituan konbentzitu ninduen (keinu polita nirekin gogoratzea). Lagun giro ezin hobea, gogoa, ilusioa eta gustuko estiloa, eztandarako formula bikaina, bai horixe! eta gerora taldeari jarri genion izena ere, neurrikoa. Asko hobetu eta indartu zen taldea, bai jakintzaz/kalitatez eta baita lagun talde moduan ere (baita inoiz esperoko ez genuen lekuetara iritsi ere, musika estiloak zituen mugak kontuan hartuta). Horrek guztiak asko betetzen ninduen. Etxean sentitzen nintzen eta sentiarazten ninduten taldekideek (sarritan baita erregearen pare ere). *Kraussk* Mutrikuko nire familia edo kuadrilatxoa izan da, eta nolabait esateko, herriko ateak ireki zizkidana.

Egia esan, lehenxeago, gaur egungo *MRK*ko entsegu-gelak ireki berritan, Iñigo eta Aitzolekin biltzen hasi nintzen. Entsegu gutxi batzuekin itxura ona hartzen hasia zen gurea, baina gero istriputxo bat izan nuen eta etortzeko zailtasun gehiago nituenez, abiatzera zihoan proiektu hura bertan behera gelditu zen.

Hortaz, esan daiteke Aritzen dei hura izan zela gaur egungo egoera honetara ekarri nauen etenik gabeko bidearen hasiera. Gerora etorri dira *MRK*, lagun artea, kontzertuak (1000 abentura: Iparraldea, Bidean Tour, Espainiako Bira...), Malenetako lehen egunean egindako entsegu baten ostean egungo bikotekidea ezagutzea, herrira bizitzera etortzea, Saturraran, Bai txo!, DeMaSa, herrian etxea erostea...

Asko zor diot *Krausski* eta baita Mutriku herriari ere, aukera hau eman eta ateak horrela irekitzearren. 8 urte inguru hemen bizitzen; ia mutrikuartutako markina-xemeindarra naiz. Izatez hangoa naizela esaten dut, baina harro nago zuen parte izateaz ere. Herritarren izaera irekia (aldea igarten da), itsasertzeko herri polita, sorgindu ninduena (printzesa kapritxosie) eta *Itoiz* taldearen sorterria. Zer eska nezake gehiago?

10 urte inguru izango dira *Kraussk* sortu zela, eta 3 hilabete azken kontzertua eman genuela. *Krausske*n bidea eten da, baina bizitzak, lagun arteak eta musikak aurrera jarraitzen du. Hortaz, gero arte; eta, bitxartian, ondo BIZI!

Argitaratzailea **Karenka komunikazio elkartea**
Barrenkale 12, behea - 20830 Mutriku Tel. 635 748 393
e-posta **aldizkaria@kalaputxi.eus** - **kalaputxi2001@gmail.com**
web **http://www.kalaputxi.eus** Bloga **www.kalaputxi.blogspot.com**
Laguntzaileak **Mutrikuko Udala** eta **Gipuzkoako Foru Aldundia**
Kolaboratzaileak **Iñigo Andonegi, Josu Larrañaga.**
Tirada **2.200 ale** Lege Gordailua **SS-787/01** ISSN **1579-4792**
Inprimategia **EUSKALINPRI** Banaketa **Kalaputxi**

Kalaputxi Herri-Aldizkarixak
Erakunde hauen diru laguntza jasotzen du:

Mutrikuko Udala

Gipuzkoako Foru Aldundia

www.lurraldebus.eus

900 300 340

astelehenetik ostiralera

DB03 LEKEITIO-DONOSTIA

Lekeitio	6:15	9:50	12:50	17:50	20:00	
Ondarroa	6:40	10:15	13:15	18:15	20:25	
Mutriku	6:45	10:20	13:20	18:20	20:30	
Donostia	*7:55	11:30	14:30	19:30	---	*Unibertsitatetik

DB03 DONOSTIA-LEKEITIO

Donostia	8:00	11:00	*14:30	18:00	20:30	*Unibertsitatetik
Mutriku	8:50	11:50	15:25	18:50	21:20	
Lekeitio	9:35	12:35	16:10	19:35	22:05	

DB04 ONDARROA-MALLABIA

Mutriku	7:15	orduro		20:15	21:25	22:15	22:45
Mendaro	7:50	orduro		20:50	22:05	22:50	22:55
Eibar	8:15	orduro		21:15	22:30	22:45	23:15
Mallabia	8:30	orduro		21:30	22:45	---	---

DB04 MALLABIA-ONDARROA

						ostr. lanegun
Mallabia	6:00	6:45	orduro	20:45	21:25	22:05
Eibar	6:10	7:05	orduro	21:05	21:45	22:15
Mendaro	6:35	7:35	orduro	21:35	22:10	22:30
Mutriku	6:55	7:55	orduro	21:55	22:30	22:40

DB05 MUTRIKU-ZUMAIA

Mutriku	6:25	9:25	11:25	13:25	16:25	18:25
Deba	6:40	9:40	11:40	13:40	16:40	18:40
Zumaia	7:10	10:10	12:10	14:10	17:10	19:10

DB05 ZUMAIA-MUTRIKU

Zumaia	8:10	10:10	12:10	15:10	17:10
Deba	8:40	10:40	12:40	15:40	17:40
Deba	9:15	11:15	13:15	16:15	18:15
Mutriku	9:25	11:25	13:25	16:25	18:25

DB06 ONDARROA-SORALUZE

Mutriku	8:45	10:45	12:45	14:45	17:45	19:45	21:45
Mendaro	9:20	11:20	13:20	15:20	18:20	20:20	22:20
Soraluze	9:40	11:40	13:40	15:40	18:40	20:40	22:40

DB06 SORALUZE-ONDARROA

Soraluze	7:40	9:40	11:40	13:40	16:40	18:40	20:40
Elgoibar	7:45	9:45	11:45	13:45	16:45	18:45	20:45
Mendaro	8:00	10:00	11:00	14:00	17:00	19:00	21:00
Mutriku	8:20	10:20	11:20	14:20	17:20	19:20	21:20

larunbat, igande eta jai-egunak

DB03 LEKEITIO-DONOSTIA

Lekeitio	8:00	12:30	17:00	19:00	
Ondarroa	8:25	12:55	17:25	19:25	
Mutriku	8:30	13:00	17:30	19:30	
Donostia	9:40	14:10	18:40	20:40	

DB03 DONOSTIA-LEKEITIO

Donostia	10:30	14:30	17:00	Ig 20:30	Lr 21:00
Mutriku	11:20	15:20	17:50	21:20	21:50
Lekeitio	12:05	16:05	18:35	22:05	22:35

DB04 ONDARROA-MALLABIA

Mutriku	Lr 7:15	Ig 8:15	orduro	20:15	21:25	Lr 22:15
Mendaro	7:45	8:45	orduro	20:45	22:05	22:20
Eibar	8:10	9:10	orduro	21:10	22:30	22:45
Mallabia	8:25	9:25	orduro	21:25	22:45	---

DB04 MALLABIA-ONDARROA

Mallabia	Lr 6:50	Ig 7:45	orduro	Lr 21:45	Ig 19:45
Eibar	7:00	8:00	orduro	22:00	20:00
Mendaro	7:35	8:35	orduro	22:35	20:35
Mutriku	7:55	8:55	orduro	22:55	20:55

DB05 MUTRIKU-ZUMAIA

Mutriku	8:25	10:25	12:25	14:25	16:25	18:25	20:25
Deba	8:40	10:40	12:40	14:40	16:40	18:40	20:40
Zumaia	9:10	11:10	13:10	15:10	17:10	19:10	21:10

DB05 ZUMAIA-MUTRIKU

Zumaia	9:10	11:10	13:10	15:10	17:10	19:10	22:10
Deba	9:40	11:40	13:40	15:40	17:40	19:40	22:40
Deba	10:15	12:15	14:15	16:15	18:15	20:15	23:15
Mutriku	10:25	12:25	14:25	16:25	18:25	20:25	23:25

DB06 ONDARROA-SORALUZE

Mutriku	9:45	11:45	13:45	17:45	19:45	21:45
Mendaro	10:20	12:20	14:20	18:20	20:20	22:20
Soraluze	10:40	12:40	14:40	18:40	20:40	22:40

DB06 SORALUZE-ONDARROA

Soraluze	8:40	10:40	12.40	16:40	18:40	20:40
Elgoibar	8:45	10:45	12:45	16:45	18:45	20:45
Mendaro	9:00	12:00	13:00	17:00	19:00	21:00
Mutriku	9:20	12:20	13:20	17:20	19:20	21:20

www.euskotren.eus

Bilbo - DEBA - Donostia

	Lehena A-O	Lehena L-I	Azkena egunero
Bilbo		7:00	20:00
Eibar	6:14	7:14	21:14
Elgoibar	6:24	7:24	21:24
Mendaro	6:33	7:33	21:33
DEBA	**6:44**	**7:44**	**21:44**
Zumaia	7:00	8:00	22:00
Zarautz	7:08	8:08	22:08
Orio	7:15	8:15	22:15
Errekalde	7:29	9:29	22:29
Donostia	7:38	9:38	22:38

Donostia - DEBA - Bilbo

	Lehena A-O	Lehena L-I	Azkena egunero
Donostia	5:50	7:50	20:50
Errekalde	5:59	7:59	20:59
Orio	6:14	8:14	21:14
Zarautz	6:20	8:20	21:20
Zumaia	6:29	8:29	21:29
DEBA	**6:43**	**8:43**	**21.43**
Mendaro	6:52	8:52	21:52
Elgoibar	7:01	9:01	22:01
Eibar	7:11	9:11	22:11
Bilbo	8:20	10:20	23:20

Bizkaibus 902 222 265

ONDARROA - BILBO

astelehenetik ostiralera

	lehena	azkena
A3916 Ermuatik	5:40	19:40
Mutrikutik irten: 6:25, 7:25, 15:25		
A3915 Durangotik	6:10	20:10

jai egunak

A3916 Ermuatik	6:40	20:40
A3915 Durangotik	7:10	20:10

BILBO - ONDARROA

astelehenetik ostiralera

	lehena	azkena
A3916 Ermuatik	7:10	22:10
Mutrikuraino: 14:10, 18:10, 20:10		
A3915 Durangotik	7:40	21:40

jai egunak

A3916 Ermuatik	8:10	22:10
A3915 Durangotik	8:40	21:40

ordutegi eta geltoki guztiak hemen:

www.kalaputxi.eus/garraioa

"JAI BATZORDEA"K BESTE ZERBAIT ESAN NAHI DUENEAN

Aurtengo jai egitarauaren inguruan ustekabean Bizixo jai konpartsak sortutako iskanbila eta nahasmen artifizialaren aurrean argibideak eman nahi ditugu..

1- Bilduren legealdian, Udalak eta "herritxarron jaixak" batzordeak Malen jai egitarau adostua eta bateratua ateratzea lortu zuten. Talde guztiok oso ondo ikusi genuen akordioa izan zen. Adostasun horretan, ordea, baldintza bat zegoen; presoen aldeko inolako ikur, aldarrikapen edo omenaldi ez agertzea. Jakitun ginen Espainiako ordezkaritza horrelakoak zorrotz zaintzen ari zenez, zerbait agertuz gero Udala epaitegian salatua izateko arriskuan gerta zitekeela. Hori horrela, legealdi honetan ere dinamika berari jarraipena eman nahi izan genion. Ez dugu Bizixorekin inolako arazorik izan. 2016an denon hutsegite baten ondorioz, ikur txiki bat agertzeagatik Espainiako ordezkariak Udala epaitegira eraman zuen eta hor jarraitzen dugu oraindik horrek duen kostu ekonomikoarekin.

2- Arestian esan bezala, elkarlanean aritu gara urtero eskaintzak, egunak eta ordutegiak adostuz. Ez dugu inolako arazorik izan. 2017an, aurreko urteetan emandako laguntza ere igo egin zitzaien 4.700 eurotaraino. 2018an ere bide bera egin da. Halako batean, ia guztia itxita zegoela, Bizixoko ordezkariek presoen elkartasunezko bazkaria eta manifestazioa egitarauan sartzea eskatu zuten, horrela izan ezean programatik kanpo geratuko zirela adieraziz. Esan zitzaien beren kasa ager zezaketela baina udaleko programan sartu gabe. Bereari eutsi diote, ordea. Horren aurrean, Udalak esan die, beste edozein elkartek burutzen dituen ekintzekin bezala, beren programaren aurrekontua agertuz laguntza bat emango zaiela.

3- Guzti honen aurrean garbi azaldu nahi dugu Udalak ez diela inolako mehatxurik egin. Bazekiten zein baldintza dagoen eta joko arauak haustearen alde egin dute horrek dituen ondorioekin. Udala zabalik dago oraindik adostasunera iristeko baina beti onartutako arauen barruan.

4- Azkenik agertu nahi dugu garbi dagoela jaiekin inolako zerikusirik ez duen joku politikoak astindu duela guztia arazorik ez dagoen lekuan. Bakoitzak jakingo du bizikidetzaren ala urteetan ezagutu izan dugun tentsioa berpiztearen alde gauden.

Mutrikuko EAJ-PNVren Udal taldea

ZURI MUTRIKU, ZURI BIHOTZEZ

Juan Mari gogoan.

Zer esan daiteke beti ondoan izan duzun aita baten galeraz. Zer, 17 urterekin ezagutu eta 50 urtez elkarrekin egonda gero, bapatean joan den senarraz. Eta zer esan, urte gutxiz bada ere, horrenbeste eman eta gero, agur esan digun aitxonaz.

Osasunez beterik zeunden aita, gazte, irrifartsu, bizitzeko gogoz. Eta horrela gogoratuko zaitugu beti, hori delako hemen utzi diguzun oroitzapen zoragarria. Azkenean bihotzak huts egin dizu, baina haundia eta ederra zenuen benetan bihotza.

Zure herriaz beti harro egon zara, Mutriku ez zeneukan saltzeko, ez. Eta ez da gutxiagorako. Egun hauetan herri honek eman diguna izugarria izan da. Ez daukagu hitzik jaso dugun maitasun guztiari erantzuteko, herritarrek ekarritako oroitzapen ederrak eskertzeko, jasotako berotasun guztia bueltatzeko. Ez daukagu hitzik. Beraz, jarrai ezazu, aita, herri hontaz harro egoten, benetan harro.

Makina bat aldiz entzun dizkizugu zure txikitako jolasak, gaztaroko parrandak, herrian eta herrikideekin bizi izan dituzun mila istorio. Era batera edo bestera denek agur esan nahi izan dizute: familiak, lagunek, lankideek, koruko lagunek, ume, gazte zein helduek. Bizitzan gauzak ondo egin izanaren seinale da hori.

Orain, bazoaz, txalupa hartu eta itsasoan barrena. Atzera buelta eman eta irrifarrez begiratzen diozu txikitatik hazten ikusi zaituen herriari. Haizea alde duzu. Lasai zoaz. Harro zoaz. Hala gelditzen gara geu ere, ondo zauden lasaitasunaz, senar, aita eta aitxona ezinhobea izan zaren harrotasunaz. Kantuz alaitu dituzu beti bazter guztiak eta kantuz agurtzen zaitugu. Jarraitu kantuan, triste dauden bihotz guztiak alaitzen.

Eskerrik asko bihotz-bihotzez!!
Eskerrik asko, herri txiki, baina bihotzez hain haundia zaren honi.
Eskerrik asko zuri, Mutriku.

Edurne, Ainara eta Asier

*Kalaputxi*k irakurleen gutunak plazaratzen ditu. Datozen ordenean eta espazioak eskaintzen duen aukeraren barruan, moztu edo hurrengo hilerako laga dezakegu.
Gutunak izen abizenekin bidaliko dira:
kalaputxi2001@gmail.com edota **aldizkaria@kalaputxi.eus**

*Kalaputxi*k ez du bere gain hartzen aldizkarian hirugarrenek adierazitako esan-iritzien erantzukizunik.



UDA SASOIA GUREAN

gero eta bisitari gehiago dator Mutrikura

Aspaldian asko hitz egiten da turismoaren inguruan, komenigarria dela, ez dela komenigarria... Herritarren aldetik ere turismoa eta bisitariak hartzeko ikuspegia ezberdina da. Herri gisa, Mutrikuren izaera turismoari begira jarri behar dela eta jarrita dagoela esaten da. Modan dagoen gaia dela ematen du, hango eta hemengo hondarrak astintzen ditu behintzat.

Gero eta gehiago dira turismoari begira bizi diren lurralde, herri eta hiriak. Jendearen joan-etorria etengabea da. Turismoa sozializatu egin dela dirudi, jende gehiagorengana iritsi dela. Eta bisitarien joan-etorri horrek diru-sarrera garrantzitsuak sortzen ditu herriaren aberastasun iturri bilakatzeko bidean. Alabaina, turismoak eta bisitariek dakartzaten alde ilunak ere gehiago azalarazi dira; kutsadura, prezioen igoera, espekulazioa… batzuk esatearren. Beharbada, gure herrian ez dira hain nabarmenak alde ilun horiek, eta herritarren artean ez da zalaparta berezirik sortu.

Herritarren iritzia

Duela pare bat urte herritar batzuei galdetu zien *Kalaputxi*k eta honakoak erantzun zituzten turismoaren gehikuntzaren inguruan: nabaritu zutela bai, gehikuntza, bisitari gehiago ikusten zutela Mutrikun baina ez zutela masifikazioaren beldurrik. Era berean, turismo integratzaile baten eta orekatu baten alde egiten zuten ia denek. Denbora hori igarota, ikusten da hala jarraitzen dugula, eta Mutriku bisitatzera datozenen nolakotasunak ez diola eragin nabarmenik eragiten herriari.

Herriak eskaintzen duenaren inguruan, berriz, ia denak ados zeuden gure herriaren edertasuna bisitarientzako erakargarria dela; hori bai, hobetu beharreko kontuak ere aipatzen zituzten: herriko seinaleztapenak, garbitasuna, txukuntasuna… Arlo horretan ezin esan oso fin gabiltzanik: Askotan ingurura begiratzea nahikoa ditugun belargune gutxiak ere belarrez hazi-hazi eginda daudela konturatzeko; zaborren tratamenduan ere herritarrek eta kudeatzaileek zuzentzeko duten gaia da.

Azpiegiturak

Gurera egun pasa datozen bisitariak herrian gelditzea eta egun batzuetan bertan egotea garrantzitsutzat jotzen da, izan ere, turismoa herriarentzat ekonomia sustatzeko bide garrantzitsua izatea bilatzen baita. Horretarako, azpiegituren inguruan ikusten zen jatetxe edo logela kontuetan eskas gabiltzala Mutrikun. Aspalditik martxan dauden lau kanpiñek (Aitzeta, Galdona, Santa Elena eta Saturraran) mota bateko bisitariei ematen zieten eta ematen diete aukera gure herrian egonaldia egiteko. Haien ostean, dagoeneko urte batzuk atzerago, herrian sortu ziren beste ostatuek (Arbe, Haitzalde eta Zumalabe) beste bisitari mota bati eman zioten aukera berria.

Duela bi urtetik hona Mutrikurentzat azpiegitura garrantzitsua izan den Kofradia zaharra galdu da herri-eskaintza gisa. Lotarako ez ezik jateko eta eskaintza kulturala gisa ere galdu da, eta, tamalez, haren kudeatzaile den Eusko Jaurlaritzaren Portuen sailak ez du neurririk hartu hura berritzeko.
Mundu osoan indarra hartzen ari den pisu turistikoen fenomenoa Mutrikura ere heldu da, eta

“Kofradi Zaharra eta Bentalekua berregitea urgentziazkoa da

“Mutrikun 22 apartamentu turistiko daude 2016ko legeriaren barruan

BERISTAIN
DENDA LURRINDEGIA ESTANKOA
Barrenkale, z/g
943 60 35 44

LEA-ARTIBAI
Hileta zerbitzuak - Beilatokia
MUTRIKU Tel.: 943 60 41 20
ONDARROA: Arta Bide, 24 - Tel.: 946 830 960
Mug: 659 879 268

gero eta gehiago dira gurean egun batzuk igarotzeko aukera hori hartzen dutenak. Eusko Jaurlaritzak 2016 urtean gaia arautzeko legeria ezarri zuenetik 22 etxebizitza prestatu dira Mutrikun erabilera hori eskaintzako. Hiriburuetan eta turismoa masiboki jasan eta bisitariak neurriz gain jasotzen dituzten hiri zein herrietan apartamentu turistikoen gaiak hautsak harrotu baditu ere, gurean ez da oraindio arazo nabarmenik sortu auzotarren artean.

Bai egun pasa bai egun batzuk pasatzera datozenek kalean jateko ohitura izaten dute, eta horretan ere ez da asko aldatu herriko eskaintza azken urteetan. Adierazi digutenez, udan, eta Aste Santuan ere bai, etortzen diren bisitariek sortzen dituzten beharrei erantzuteko langile asko kontratatu behar izaten dira, eta hori gauza positiboa da, nahiz eta onenean hiru hilabeteko kontua izan.

Bisitarientzako eskaintza

Mutrikura etorri eta egun batzuetan lotan eta jaten herrian geratzen diren horiei eskaintza turistiko-kulturala ere egiten zaie. Sustapen horretan aspaldi hasi zen, eta urtetik urtera eskaintza hori zabalduz joan da gaur egunekora heldu arte.

Lehenago esan bezala, herrian produktu turistiko-kultural moduan prestatu zen Bentalekua museoa, Kofradia Zaharrean kokatuta zegoena, galdu egin zen duela pare bat urte izan zen sutean. Herriak dituen eskaintza ederrenetakoa hantxe galdu zen, eta errekurtso hori berrantolatzea garrantzitsutzat jotzen da, urgentziazkotzat.

Baina Bentalekuaz gain, Mutrikuk badu zer eskaini bisitariei, eta eskaintza horri balio handia ematen diote herritarrek eta bisitariek ere bai. Nautilus interpretazio zentroa bisitarientzat erakargarritasun handiko baliabidea izanik, gehiago ere badira gure herrian, naturaren berezko presentziatik hasita. Mutrikuk itsasertza eta mendialdea batera eskaintzen ditu, eta horietan zeharreko ibilaldiak aipagarriak dira. Geoparkearen baitan, hainbat dira eskaintzen diren ibilbideak eta horiek izan gabe, gure herrian bada non zehar ibili naturaz, historiaz eta kulturaz norbere kabuz gozatzeko.

Bisitariak gure herrira etorri eta eraikin ederren fatxadak ikusten zituzten herrian zehar. Aurten, Udalaren ekimenez, Arrietakua Jauregia bisitariei ireki ahal izango da eta bisita hori eskuragarri izango dute bisitariek eta herritarrek ere bai.

Laburtuta, esan daiteke mutrikuarrok herri ederrean bizi garela eta bisitariak hartzeko eta haiei eskaintza ederra egiteko modukoa dela uste dugu.

Hala ere, azken urteetan aurrerapen handiak egin badira ere, uste zabaldua da oraindik asko dugula egiteko gure herriarentzat turismoa jarduera ekonomiko garrantzitsua izatea iristeko.

Geoparkea
Costa Vasca - Euskal Kostaldea


KARSTEKO ZAPOREAK


NAUTILUS, FLYSCHEKO FOSILAK


MUTRIKU MARINELA


ZAZPI HONDARTZAK


ARRIETAKUA JAUREGIA

ZELAIETA JATETXEA
ondo pasa Malen jaixetan!
Umeentzako pottokak, Kapeak bazkariarekin
Tel.: 943 60 45 95 Olatz Auzoa - Mutriku

Ondo pasa Malenak!
APALLU ITURGINTZA
Telf.: 600 316 381 - 943 02 98 61
San Agustin,3 - Mutriku
apallu@apallu.es www.apallu.es

PALISTA MUTRIKUARRAK ELGOIBARREN NAGUSI




Aspaldian ohikoa da emakumezkoak ikustea frontoian palaz jokatzen. Eta gure herrian ez ezik, herritik kanpo ere beren maila erakusten dihardute. Elgoibarko Emakumezkoen Binakako 7. Pala Txapelketan parte hartze ezin hobea izan dute palista mutrikuarrek: Iratxe eta Maite Barruetabeña ahizpak txapeldun. Iaz ere beraiek jantzi zuten txapela. Idoia Arrillaga eta Eva Ibarrola bikotea finalista izan zen. Aken emaitza garrantzitsuena ez den arren, esan behar 22 eta 14 nagusitu zirela Barruetabeña ahizpak. Zorionak txapeldunei eta txapeldunordeei ere bai!

Mutrikuarrek erakutsitako mailak etorkizunean ere jarraipena izan dezan lanean dabiltza gure herkideak, eta emakume guztiak animatu nahi dituzte palaz jolastera, asteazkenetan 19:15ean Miruaitzen eta Egañaneko frontoian udan egingo dituzten hitzorduetara.

Hortaz, emakume, hurbildu eta probatu pala-jokoa!

DEBAKO ZUBIAK BEHERA EGIN DU



Uztailaren 5eko goizaldean Deba ibaiaren gaineko zubiaren erdiko zutoinak behera egin zuen eta, argazkian ikus daitekeenz, alde batetik bestera igarotzeko plataformak ere behera egin zuen. Itxura denez, ibaiko urak urteen poderioz egindako lanak zutoinaren oinarria ahuldu izanak sortu du kaltea. Zubiaren konponketarako luzea izango den aldian ibaiaren uraz hemendik eta uraz handik bizi direnek ibilalditxoa egin beharko dute zubi berrian barrena igarotzeko. Behin behineko neurri moduan, Lurraldebusen autobus zerbitzu guztiek Deba erdigunean eta Urazamendik auzoan geldialdia egingo dute zubiaren ohizko erabiltzaileei kaldea txikitzearren.

BI JOKALARI MUTRIKUAR EIBAR FUTBOL TALDERA



Mutrikuk izan du ordezkaririk goi mailako kirol taldeetan, eta gaur egun ere hor dugu Asier Illarramendi herritarron harrotasunerako. Lehenago ere izan ziren, eta aurrera begirakoan ere izango dira.

Amaitu den denboraldian Burumendi Gazte Elkartearen nesken infantil taldean joko bikaina erakutsi ondoren, Eibar Futbol Taldeak Jane Arreitunandia eta Elaia Andonegi gazteak fitxatu ditu datorren denboraldian kadeteen taldean joka dezaten. Ondo egindako lanak emaitzak dakartzala ikusteko berri ona dugu honakoa.

Aurrerantzean mutrikuarrok arrazoi berri bat izango dugu Eibar Futbol Taldeari animatzeko, Fran Garagarzak kirol arloa zuzentzen duen klubean mutrikuarren presentzia handitu egin da eta.

IBARPLAS
leihoaren erreferentzia
Itziarko poligonoa, C pabilioia · 20200 ITZIAR · Tel. 943 199236 · www.ibarplas.com · ibarplas@ibarplas.com

ARRIETAKUA JAUREGIRA BISITAK

Jauregiaren ateak irekiko zirela jakin zenetik ikusmin handia zegoen herrian Arrietakua jauregia barrutik ikusi ahal izateko. Horrenbeste urteren buruan, mutrikuarrek herriko etxe enblematikoa ikusi ahal izan dute, hainbat gizalditan hainbat eta hainbat gizon-emakume entzutetsuren kabi izandakoa, besteak beste, Gaztañeta eta Cosme Damian Txurrukarena. Bisitak hasi zirenetik 23 bisitaldi egin ziren mutrikuarrek osatutako taldeetan, guztira 345 lagun, ordu eta erdiko bisitetan. Tartean, etxea aspaldi ezagutu zutenak, familiakoen lagun, auzoko, ezagun izan zirelako bertan bizipenak izan zituztenak. Eta beste hainbat lagun etxea barrutik orain ezagutu dutenak. Bisitari gehien-gehienak txundituta geratu dira etxea ikustean. Udara begira, astearteetan eta ostegunetan izango dira bisitaldiak eta horietan parte hartzeko aurrez *www.geoparkea.eus* atarian eman beharko da izena. Bisita batzuk gaztelaraz eta beste batzuk euskaraz izango dira, baina taldea osatuz gero, nahi den hizkuntza aukeratu ahal izango da.

AUTOBUSA HONDARTZARA

Urtero moduan, distantzia luzeetan mugitzeko arazoak dituzten herritarrek autobus zerbitzua izango dute hondartzara jaisteko eta hondartzatik etxera itzultzeko. Irailaren bukaerara arte martxan egongo den zerbitzuaren ordutegia hauxe izango da:

Uztailean eta abuztuan hondartzara jaisteko, Errotondatik irtengo da autobusa 12:30etan, 13:30etan eta 14:00etan. Hondartzatik, berriz, 13:00etan, 13:45ean eta 14:15ean irtengo da autobusa eta auzoz auzo utziko ditu bidaiariak.

Irailean, hondartzara jaisteko 12:30etan eta 13:30etan irtengo da Errotondatik; herrira igotzeko 13:00etan eta 13:45ean irtengo da hondartzatik.

Bestalde, gogoratu behar da udan zehar autobus-zerbitzu gehigarriak izaten direla, eta aurtengoan ere izango dira: Batetik, Ondarroako jaietara gauean joatekoa eta bestea Kalbaixo egunean Kalbarioko ermitara joateko eta itzultzeko izango dena.

www.kalaputxi.eus



LGTBI HARROTASUNAREN EGUNA OSPATU ZEN BEHEKO PLAZAN

Lesbiana, gay, transexual, bisexual eta intersexualen kontrako erasoak eta diskriminazio egoerak gaitzetsi zituzten, beste hainbat herritako plaszxetan bezala, Beheko plazara bertaratutako mutrikuarrek.

NT2 PNEUMATIKOAK ETA MANTENTZE-LANAK
BIZKOR AUTOAK
Continental · GOODYEAR · VREDESTEIN · DUNLOP · KUMHO TYRE
astelehenetik ostiralera 9:00 - 13:00 / 15:00 - 19:00
Antzomendi industrialdea · 943 607 182 · www.nt2.es

MUTRIKUKO TANATORIOA
Ntra. Sra. de Begoña EHORZKETA
Iriagirre z/g
Tel.: 646 351 352 - 943 60 47 78
943 20 10 95 (24 ordu)



Gorritxu autoak
Pol. ANTZOMENDI · Galdona bidea
MUTRIKU 943 60 31 86
gorritxuautoak@hotmail.com


ALKOLEA ARDOTEGIA
Jon Andoni Basurko Pagoaga
Tel.: 943 60 35 99
alkolea.edariak@gmail.com
Barrenkalea, 2 - behea 20830 Mutriku
Edariak eta gehiago...

ARRIZABALAGA
Okela eta janari prestatuak
Gora Malenak!
Mijoa Pol. Ind., P2-2
Tel. / Faxa: 943 603 065
E-mail: arrizabalaga1939@gmail.com
20830 MUTRIKU (Gipuzkoa)

islada FISIOTERAPIA
Fisioterapia, Pilates, Errehabilitazioa, Hipopresiboak
Antigimnasia, Diatermia (Medestec)
ondo pasa jaixetan eta udan !
San Agustin 10, behea · 943603655 · islada@islada.org

PERRAS arrandegia
ONDO-ONDO PASA MALENAK!


arratsaldez zabalik
martitzenetik barixakura
merkatu plazan · 607920925

GOTZON EIZAGIRRE:
"Negu umela eta freskoa izan da aurtengoa"

Hamaika urte izango dira eguraldiaren aitzakiaz jardun genuela Gotzon Eizagirrerekin. Azkenaldian eta izandako negu luzea hizpide, gustuko duen gaiaren inguruan jardun dugu berarekin.

Eguraldiaren inguruan luze eta zabal jarduteko aukerarik ez dugu galtzen...

Askotan esan izan dugu igogailuko elkarrizketak izaten direla baina hainbeste aldatu da dena, uneoro honen inguruan jakiteko aukera hain da zabala ezen eguraldiko gizon-emakumeak bihur gaitezkeela. Gero, aurtengo negu luzeak ere eman du zer esana, udaberria ere hala nolakoa…

Zuk zeuk ere igarriko zenuen aldaketa...

Nola ez bada… Interneten aukera honek dena aldatu duela esango nuke. Batzuetan atzera begiratu eta konturatzen naiz lehen naturari gehiago erreparatzen niola, denbora gehiago eskaintzen nion itsasoari, lainoei, zeruari… Gaur egun, denboraz justu samar ibiltzean Internetek eskaintzen dit informazioa, halaxe da…

Eguneroko tartea eskaintzen diozuna...

Nire tarte libre laburretako zaletasuna da eta ezin da hutsik egin. Egia da dedikazio txikiagoa izan arren gordeta dauden datuak zehatzagoak eta osatuagoak direla. Nire izena klikatuz gero, Mutrikuko eguraldiaren gorabehera guztien berri izan dezake hona jotzen duenak. Urtez urte, eta nahi adinako informazioa. Nire meteorologi-estazio txikiak dena jasotzen du eta bost minuturo nire orrian txertatzen du.

Kezkatzeko moduko aldaketak ikusten dituzu?

Azarotik honakoa izan da umelena eta freskoena, ez du esan nahi euri kopuru handiena egin duenik, baina bai egun gehienetan. Foro baten mugitzen gara ni moduko asko eta elkarren artean hitz egiten dugu honetaz eta hartaz. Arazo horietako bat *Niña* eta *Niño* itsas korronteak dira; aurten Pazifikoan *Niña* egon da, itsasoko ura ohikoa baino hotzagoa egon da. *Niño* dagoenean, berriz, itsasoko ura ohikoa baino beroagoa egoten da. Honelako gertaerek eragin handia izaten dute kliman, nahiz eta metereologoak ados ez egon euren artean, eragindakoa ezberdina izaten delako lekuaren arabera. Peru edo Venezuela aldean *Niño*k lehorte handiak eragiten ditu; *Niña*k, berriz, uholdeak. Bestalde, ikusten dugu aurten tropikoko (iparraldean) ura ohikoa baino hotzagoa dagoela, beraz, uste dugu mendebaldean (Espainia, Ingalaterra…) ez dela muturreko berorik izango.

Klima aldaketa dagoela esan daiteke?


Ezin da halakorik esan, klima aldaketan zikloak izaten baitira, eta gero gizakiaren eragina ere hor dago... Badakigu glaziarrak urtzen ari direla. Izotz-urtze honekin uste da itsasoa hoztu egingo dela eta uraren maila igo. Azken bost urteetan ohikoa baino lehorrago egin du eta jendeak uste du hau Benidorm dela.

1850. urtetik gaur egunera arte, 0.85° C-ko igoera izan da orokorrean mundu mailan. Zientzilarien arabera, 2°C-ko igoera oso arriskutsua litzateke mundu mailan izango liratekeen aldaketak direla eta. Halaber, ezin ahaztu, tenpeatura igoera nabarmenena azkenengo urte gutxitan izan dela...

Eguraldi iragarpenak ere asko ugaritu dira...

Bai eta urte osokoak entzuten dira; urtaro osorakoak… denen gustua egiteko edo… 3 eguneko iragarpenean %75 asma daiteke. 5 egun artekoan %50, hortik aurrera… Modeloak 6 ordutik 6 ordura aldatzen dira eta modelo horiek hogeitik gorakoak izan daitezke. Tenporak ere hor daude; ez dira zientifikoak, baina jendeak asko begiratzen ditu.

Edozeinek interesa edo jakiteko gogoa balu, *Meteoclimatic* edo *Gotzon Eizagirre*ren orrian sartzea besterik ez. "*Lekitxoko zeruak*" orrian ere, oso kontu interesgarriak aurki daitezke.



pinpirin
ongizate-estetika zentroa
terapia alternatiboak
eta
estetika zerbitzuak
943 02 91 34 - 650 341 768
Barrenkale 9, behea - Mutriku

ASTIGARRAGA ANAIAK, S.L.U
ERAIKETAK
Tel.: 943 60 40 86 / 667 411 938
e-mail: astigarragamutriku@outlook.es
Txurruka Tteak., 28 behea - 20830 Mutriku (Gipuzkoa)

MAIALEN NABERAN URANGA "Mutri"
Alaves Gloriosas taldeko atezaina

Gasteizen kirol-irakasle titulua lortzeko estudiatzen zegoela egin zuen salto Mutrikutik Alavesera, eta han jarraitzen du, egun graduko estudioak Eibarren egiten ari bada ere. Garbi du emakumeek kirolean eman dezaketenaz, eta estudioak bukatzean horretan lagundu nahi luke. Bizitza arrunterako zein norbanakoen osotasunerako ere aberasgarri ikusten du kirola praktikatzea.





Nola izan zen kirolarekin izan zenuen lehen kontaktua?

Betidanik ezagutu izan dut futbol giroa familian. Aitona, Jose Manuel Uranga "*Panizo*", sinbolo bat izan zen *Mutriku FT*n aurrelari bezala, aitak atezain joktu zuen, ahizpa laster hasi zen futbol zelaian jokatzen aurrelari, eta amak ere dio umetan Samikollan futbolean aritzen zela gustatzen zitzaiolako. Beraz, ez da izan zaila hartu dudan bidea aukeratzea. Gogoan dut eskolako jolastokian laster egiten genuela lekua bankuen artean porteria jartzeko, eta han aritzen ginen egunero. Gurasoekin herritik ateratzen ginenean beti eramaten nuen nire baloia, eskularruak eta patinak, horiek ziren nire nahitaezko altxorrak, eta aitarekin ibiltzen ginen entrenatzen.

Hurrengo urratsa zein izan zen?

Ikastolan nenbilela hasi nintzen eskola-kirolean, mutilek zein neskek elkarrekin jolasten genuen, eta baita partiduak jokatu ere. Hor, jada, beti nintzen atezain. Lehen hezkuntza bukatzean, 6. mailan 12 bat urterekin, *Mutriku FT*n sartzean, neskek soilik osatutako taldeek hartzen zuten parte lehiaketetan, eta horietan ere beti atezain jokatu izan dut futbol 8 mailan. Une baten futbol 11 mailan ari zirenek ez zeukaten atezainik, eta eurekin jokatzeko eskatu zidaten. Ez nuen izan arazorik maila goragokoekin jokatzeko, alderantziz, gogo handiz egiten nuen, eta denboraldi bat igaro nuen bi maileta astean bi partidu jokatzen. Etxekoen laguntza garrantzizkoa izan zen horrela ibiltzeko.

Adinean aurrera egitean ilusio berberarekin jarraitzen al duzu?

Senior mailara iristean ahizparekin batera jolasteak ilusio handia egin zidan, eta errespetuz begiratzen nien urte dezente batzuk gehiago zutenei. Baina 2013-2014 ikasturtean Gasteiza joan nintzen Magisteritzako ikasketak burutzera, eta ostiraletan entrenatzeko aukera besterik ez nuen asteko partidua jokatzeko. Bigarren urtean gehiago entrenatu nahi nuenez, *Gasteizko-Neskak* taldeak utzi zidan eurekin entrenatzen asteburuan *Mutriku FT*rekin jokatzeko. Eurekin entrenatzen ikustean gustuko ikusi ninduten, eta denboraldi erdian fitxatu nahi izan ninduten, baina denboraldia *Mutriku FT*rekin bukatu nahi nuela erantzun nien.

Horrela, hurrengo denboraldian, 2015-2016an, bertan fitxatu nuen eta *Mutriku FT* zegoen baino maila bat gorago, Euskal Ligan, hasi nintzen jokatzen; poz handiz, atezain entrenatzailea genuelako. Erregional mailatik salto kualitatiboa izan zen, baina sinestezinezko denboraldi bat egin genuen, eta maila bat gorago igo ginen: estatuko bigarren mailara (zazpi zonaldetan zatituta dagoena). Hori horrela, 2016-2017an bigarren mailan jolastu nuen karrerako azken urtea egitearekin batera.

Iazko urtean Eibarren hasi nintzen estudiatzen bi urtekoa den kiroleko goi-mailako gradua, eta Mutrikura etorri

aparra
JANTZIAK - PITXIAK
Erdiko kalea, 29 · Mutriku · Tel. 943604594
GIZON ETA EMAKUME, GAZTE ZEIN HELDUENTZAKO MODA

OKILA
ONDO PASATU MALENAK!
S.L.
SUKALDEKO ALTZARIAK
EBANIZTERIA
OKILA AROZTEGIA S.L.
Txirritxa - Mutriku
Tel. 943 60 40 18 - Faxa: 943 60 31 03

nintzen bizitzera. *Gasteizko-Neskak* taldea zena aldakuntza eta fitxaketa berriak eginik *Alaves Gloriosas* bilakatu zen antolakuntza aldatuz, neskei begirako filosofia berri bat aplikatuz. Talde berriaren barnean jokatzeko aukera eman zidaten, eta nahiz eta esfortzu handiagoa eskatzen zidan, astean hiru aldiz entrenatzera eta asteburuko partiduak jokatzera behartzen baitzidan, filosofia gustukoa izan, eta jarraitzea erabaki nuen, beste taldeetatik deitu bazidaten ere.

Definituko zenuke zeure burua atezain bezala? Zeintzuk dira zure gaitasunak?

Nik neure burua definitu baino nahiago dut besteek diotena entzutea. Egia esan ados nago esaten dutenean asko hitz egiten diedala kideei animatu eta zuzentzeko; baita goiko jokaldietan ondo defendatzen naizela diotenean, zein esku-sakeetan eraso azkarrak bideratzeko orduan.

Zeintzuk izan dira bizi izan dituzun unerik gogoragarrienak?

Bizi izan ditudan bi igoerak, beti izan baitut maila altuagoan jokatzeko nahia. Lehena *Mutriku FT*rekin Euskal Ligara igo ginenekoa, nahiz-eta erregional mailan jarraitzea erabaki zen; eta bestea, *Gasteizko-Neskak* bigarren mailara igotakoa.

Nola ikusten dituzu *Alaves Gloriosas* eta bere zaleak?

Taldea berria da eta egokitzea kosta egin zaigu, baina sendotzen joan gara eta denboraldi bukaeran hori nabaritu izan dugu. Zaleak, bestalde, sinesgaitza egiten zait gu ikustera eta animatzera nola etortzen diren ikustea. Eskerrak ematen dizkiet indar handia direlako guretzat.

Datorren denboraldian ahalegin berezia egin beharko dugu goi aldean mantentzen, egituraketa berriak datozelako bigarren mailarako.

Zure ametsa?

Lehen mailako atezaina izatea.

Kirol-hezkuntzara bideratu dituzu zure ikasketak, nola ikusten dituzu emakumeak arlo horretan?

Futbolari lotuta badirudi poliki-poliki aurrerantz goazela, bai parte hartzearekin, bai hedabide zein ikusleen arretarekin. Ez ditugu kanpaiak joko, baina hor dago, adibidez, *Erreala* eta *Athletic*-en arteko derbia Anoetan non ikusle kopuru handia izan zuten. Egia esatera, asko aurreratu da kirol praktika egitea sexu ikuspegia alboan utzita, umetatik praktikatzerakoan, kalitatean ere gorantz egitea dakar, eta nabaritzen doa. Hedabideetan, telebistan bereziki, urrats handiak emateko daude, oso jarraipen txikia du oraindik, nahiz eta gero eta partidu gehiago ikusten ditugun *EITB*n Baina goi mailakoen arteko ezberdintasunak hain dira nabariak...

Eskoletan esango nuke polito jokatzen dela berdintasunaren inguruan, baina oraindik ere familia askotan badago neska eta mutikoen arteko kirol praktikak bereizteko joera handia, baliteke ingurukoek esango dutenari beldur izatearen ondorioa izatea. Begira, bestela, zenbat mutilek hartzen duten parte, gure herrian bertan, dantza, antzerki eta beste alor batzuetan, eta zenbat aritzen diren futbol zelaian mutilen esparru ia bakarra balitza.

Kirol-eskolak asko lagundu du nesken kirol garapenean, ahalik eta kirol gehienetan parte hartzea bultzatuz normaltasunaren barnean. Hala ere, nahiz eta herrian bertan haurrek eskola-kirolaren ostean praktikatzen jarrai-tzeko aukerarik ez izan, haurrek ahalik eta kirol gehien ezagutu behar dituztela uste dut, bakoitzaren gustuko kirol hori aurkitzen laguntzeko.

Irakasle izatean zer landuko zenuke?

Neska eta mutilen artean, argi utzi ez dagoela bereizketa egin beharrik kirola praktikatzerakoan, hori dakusat oinarri bezala. Desberdintasun fisiologikoak azpimarratzen dituztenei esan, ez direla nabaritzen soilik sexuaren arabera, sexu berdinekoen artean daudela altuak, baxuak, lodiak, ahulak, iaioak, makalak... Sexu bereizketa hori okerra da.

Kirolaz gain Heziketa Fisikoan hori bezainbesteko garrantzia duten beste hainbat arlo ere sartzen direnez, Gorputz Adierazpena esaterako, honen inguruko lanketa ere egingo nuke ikasleentzako oso aberasgarria baita. Nire iritzi, irakasle asko bere arlotik irten eta hain ondo menperatzen ez dutenaren aurrean jartzean sor daitekeen deserosotasun edo intseguritate hori ez izateko, alde batera utzi eta erosotasunean erortzen dira. Beraz, hori gerta ez dadin, hainbat metodologia ezberdin erabiliz arlo guztiak lantzen saiatuko nintzateke, guztiak baitira garrantzitsuak eta beharrezkoak.

Zer esango zenieke *Kalaputxi* irakurriko duten neskei?

Zerbait lortzea ez dela izaten erraza, ahalegintzeko kirol esparrua ondo aukeratzen eta saiatzeko hartan. Nire esperientziatik esango diet asko lagundu izan eta laguntzen nauela kirolak estudioetan zein bizitzako beste alorretan, egunerokoa antolatu eta betekizunei erantzuteko konpromisoarekin jokatzen ikasi izanak.

Azkenik, izan nahi duten hori izateko ahalegin guztiak egiteko, nahiz eta bidea zaila izan, inoiz ere ez emateko amore, borrokatzeko, ilusioa inoiz ere ez galtzeko, eta bidean zehar oztoporen bat aurkitzen badute aurre egiteko.



Eskola-kiroleko garaia

Ristorante AzkenEtxe
egurrezko labean egindako pizzak
italiar sukaldeko zapore guztiak
parrilladak · ospakizunak
(ezkontzak, familia-bazkariak, taldeentzako menu bereziak...)
asteazken iluntzetik igande gauera arte
943 60 34 39 · 636 386 016 · ristorante.azkenetxe@gmail.com · Kalbario gaina, Mutriku

txirritxa .com
SAR ZAITEZ GURE WEB ORRIAN ETA AURKI EZAZU PROMOZIO BEREZIAK!
Tel. 946 832 600
Gardotza Industrildea, 3 > 48710 Berriatua > Bizkaia

EUSKARALDIA

Debabarrena ere elkarlanean Euskaraldia prestatzen

Debabarreneko 80 lagun batu ziren ekainaren 27an Debako Zubi Zaharrean **Euskaraldia** ekimena bailaran elkarrekin egingo dutela azaltzeko. Izan ere, Debabarreneko herri guztietan **Euskaraldia** prestatzeko lanetan dihardute, herritarrak eta erakundeak elkarrekin, datorren azaroaren 23rako dena ondo antolatuta izateko.


Mallabia, Ermua, Eibar, Soraluze, Elgoibar, Mendaro, Deba eta Mutriku herriek dagoeneko eman dute izena **Euskaraldia**n parte hartzeko, Euskal Herri mailan 350 herri, auzo eta hiritan batera egingo den ariketa soziala gauzatzeko. Deba bailara oso-osoak parte hartuko du: Leintz-Gatzagan hasi eta Mutrikuraino.

Hamarretik zortzik badaki euskaraz

Zortzi herrietako datuak bateratuta, Debabarrenean, ezagutzari dagokionez, %58,6 dira euskaldunak, %20,8 ia-euskaldunak eta %20,5 erdaldunak. Orduan, 10etik 8k euskaraz ulertzen du eta 10etik 6k euskaraz aritzeko gaitasuna dauka. **Euskaraldia** ariketa praktikoa izango da, erabilera erdigunean jarriko duena, eta ingurua eta herritarrak prestatuta, hamaika egunetan euskararen erabilera handitzea eta esparru berrietara zabaltzea izango du helburu, erabilera datuak ezagutzarenera gerturatzea.

Errealitate desberdinak, ariketa bakarra

Ez neurriz, ez izaeraz, ez soziolinguistikoki... ez dute antz handirik, ezberdinak dira bailarako herriak, baina praktika bera erabiliko dute eguneroko hizkuntza ohiturei astindua eman eta euskararen erabilerari bultzada emateko: **ahobiziak** eta **belarriprestak** aktibatu, prestatu eta hamaika egunez, azaroaren 23tik abenduaren 3ra, aproba eginda. Hala, ahobiziek euskara ulertzen duten guztiekin euskaraz egingo dute (lanean, etxean, lagun artean...), baita ezezagunekin lehen hitza, gutxienez, ere; belarriprestek, berriz, dakiten guztiei euskaraz egiteko gonbitea egingo diete, beraiekin euskaraz egiteko eskatuko diete, nahiz eta belarriprestek euskaraz edota erdaraz erantzun. Herritar bakoitzak (16 urte beteta izatea eta euskara ulertzea dira bete beharreko bi baldintzak) erabakiko du nola parte hartu nahi duen ekimenean eta zein txapa jantziko duen; aldi berean, ekimena kolektiboa izango da eta Debabarrenean euskaraz bizitzeko aukera handia dagoela bistarazi eta sentitzeko aukera eskaini nahi dute **Euskaraldia** ekimenaren bitartez.



ERAIKUNTZAK
OLATZ S.L.
Igeltseritza orokorrean, Txalet, Erreforma...
Tel. 943 60 44 10 / 670 41 42 23 - 24
Olatz Auzoa, Urrestieta Baserria - 20830 Mutriku (Gipuzkoa)

BARE BARE
PINTXOAK
RAZIOAK
BOKATAK
tel: 943 60 42 03

euskal-oria

ATZERAKO BEGIRADAZ

EL DIA EGUNKARIA, 1933 - 08 - 08

Jose Arruti Barrutia "Arnope"

Igande arratsaldean, seirak. Ipar aldeko nasara, egunero lez, gure ibilaldia.

Egaña´tar Pedro Manuel´en lantoki inguruan berrogei bat notin zai zeudela ikusi giñitun.

Nasa bertako zurubi baten inguruan Pío debarra ta semea, bere iki txalupa (lancha motoral) arraun banakin zainduaz, nasa gaiñian zeuden ayetako batzuek noiz barrena sartuko zai.

Berrogei aldra baño arutzago gizon bat eta bi mutil (auek bildurrez gelditu zirala diote "Jesus" Deba´ko barran urperatu zan ikian sartu gabe). Aruntzago iru mutil gazte, igeriko soineko utzez jantziak erok. Nasa muturrean beste iru neskatx, mirabe itxura dute. Aitatutako guztiak zai zeudela ezagun zuten, esan detan lez, ala zeuden ta…

Nasaren mutur muturrean exerita kontu kontari, bi jaun agurgarri eta nire lagun batzuek. Arratsalde onak emanik ain atsegin zaitan toki berean exeritzen naiz ni ere.

Andik bereala len aitatu detan Pío debarra badijoa hamabost hogei lagun barruan dituala, geienak Gazteiz´koak Deba´runtz.

Ura bazijoala ikustean, iru gure urrean arkitzen ziran neskatxa edo mirabeak gaba inguratzen zijoala ikusirik ziotzan, beren ebe erderan: "Ontarako ez dago eskubiderik, ekarri legorrera eta noiz eramango gaituan ez dakigula utzi"… "(Motriko´ra, "Jesus" itzuli zan ikian etorriak bai ziran) "Oñez joan bagiñan obe genduan"… Zaleturik nago gure lurralderatzeko…

Onela ari zirala, zazpirak laurden gutxi, Alkolea azpian azaltzen da "Jesus" itxasontzia notiñez beterik zetorrela eta nire lagunetako batek esaten die, iru mirabeai, nola zetorren. Korrika bizian, leyatsu alderatu ziran gugandik uri aldeko eurak lez zai zeuden aldrarengana.

Orrela sartu zen kaian "Jesus" ontzi ikia Deba´n arratsaldea igaro zuten uritarrez beteta. Bastertu zan nasa muturretik lau edo bostgarren zurubira. Irten zuten zetozenak eta sartu zai zeudenak, zoritxarreko toki artan. Aurrera ematen die eta andijoaz nasa muturrean geundenoi agurka, azken agurra izateko alaiegi, askoren azken agur ori guretzako izaki. Erai begira jarraitu genduan: "Iki azkarra zana… notintza asko zeramana…" aurrean
zijoan gizonezkoa zartxoa zana ta abar iruzkin egiñaz. (Ez dakit aitatu ditudan gizon eta bi mutilak nasan zeuden ala ez, izparringian irakurri degu sama aundia zeramalako ausartu etzirala barrena sartzen).

.....

Zazpiretan gugandik agurka igaro ziran mirabe eta notin aiek, nork esan ordu erdiren barruan Jaunari kontu eman bear ziotela?

"Oñez joan bagiña obe genduan" zai zeudela ziotzan batek. ¡Gizagaixoak, obe zenuten, bai, itz ori betea izan balitza! "Zaleturik nago gure lurralderatzeko". Gure ez jakintasuna zeiñen aundia dan, irakurle. Bera zeiñen zale zan jakiñaren etzion Goikoak eman laguntza ori. Nonbait zorra, zeukan tokian ordaindu bear. Ez bairik gabe gaude iru mirabeak itoak daudela.

Goiko Jaun errukiorrak bere etxedenean bitza.

Atsekabean laguntzen diogu ezbiar ontan ito diranen sendi eta aldeko guziei; zuri, irakurle, amalau, eriotz izan duenen aldez, otoitza.

Baita ere laguntzen diogu auzokide eta ain ez biarrean arkitzen dan iki txalupa jabe "Patxi Txarraka´ri".


Euskadi
Banakolean Correo, 17, 1.º — 234 Idazkutxa — 17.810 Urrutiskiña

EUZKADI EGUNKARIA, 1933 - 08 - 19

"Tranpalde"

Lenbiziko aldiz idaztera nua nire izparringi maite ontan, leku pizka bat arkitzen badet. Idazteko gogoa sortu zait geure aberri onen aldez zerbait egin daigun.

Aralar´era

Gaur irtengo gera notin asko geure Mikel deunaren tokia ikusteko. Arratsaldeko lauretan irten ordua degu. Igande gabean etxeratuko gera berriz.

Juanak nai izango dau eguraldi ona dedila. Mendi gora igoteko prest gaude baña buru nor juango den eztakigu.

Karlatarrak

Obeto esanda geure erriko erregetarrak zer darabile geure erriagatik edozer esaten eta geure endore jaunagatik gezurrez dana zabaltzen. Gañetikua gurutzea baña barrutikan deabrua dezute.

Arrantzaleak

Egaluze pizka bat etxeratzen dute, bai eta txipiroyak ere patxada onean dakarzkite. Asturiar aldeko berririk eztegu. Ondo ibili daizala.

www.hemeroteka.eus

ARRIETA
AUTOZERBITZUA
Gora Malenak!
Aliprox
J.M. Altzibar etorbidea · 943 60 31 01



Umetako hondartza haura...

Euskal Herriko hondartza gehixenetako hondarra ez da oso lodixa, ezta fin-fiña ere. Umetan, baiña, hondar lodi edo larrixa zakan hondartza bat ezagutu noan, Mutrikukua.

Bertan, bazkalorduko otartekua amildu eta hondar aliak errez kendu zeikezen. Horixe bentajia goiz hartan lau-bost baiñu hartutako hezur-azalezko ume goseztuarentzat!

Baiña itsasertzian, ura aillegatzen zan tokixetan, oiñak gehixegi hondoratzen zakuzen hondarpian. Tarzanen pelikulak etortzen zatezen orduan gogora, hondar mugikorretan (*arenas movedizas*) baten bat galtzen zanekuak. Zapaldu gabeko edurretan ibiltzia bezalakua zan, gozagarrixa bai, baiña nekagarrixa ere bai.

Hondarretik *txarri txikixak*, *Amabirjiñaren sandaliak* eta *Jangoikuaren begixak* batzen ibiltzen giñan. Amari ikasitxako izen eder harek erabiltzen genduzen. Izan ere, kresal giro hartan, ikasi genduan izanak izena ere bazakala. Txarrixak, sandaliak eta begixak ikusten genduzen guk, bestiek maskor edo kontxa hutsak ikusten zeuen tokixan.


Izena eta izana bai, baiña lihorrian baiño ez, sekula ez noalako holakorik ezagutu bizirik. Askoz geruago jakin noan zer ziran. Hirurak molusku gasteropoduak dira, lapak eta mangoliñuak bezela.

Txarri txikixa (Trivia monacha)




Erderaz, beste izen batzuen artian, *porcelanita* eta *margarita* esaten dixue. Hiru puntu beltz dakaz mangoliño xelebre honek. Biribillak eta politxak ziranez, eskutxua zabal-zabal eginda, eskubarruan jartzen genduan hobeto erakustiarren inguruko danai.

Amabirjiñaren sandalia edo **sandalia** (Haliotis tuberculata)



Itsas belarria, euskera batuan. Erderaz ere, bide beretik, *oreja de mar*. Zientzia-izenak ere horixe deu oiñarrixan, grezierazko *hals* 'itsasua'+ *ous,otis* 'belarrixa'. Belarrixa zein sandalia ikusi, bere kolore bizi eta distiratsuek txoratzen giñuzen.

Jaungoikuaren begixa (Bolma rugosa)



Umetan pentsatzen noan gastautako mangoliñuak zirala Jangoikuaren begixak. Baiña ez da hola; mangoliño klase jakin baten operkulua edo tapia da. Benetan dotoriak kiribil edo espiral itxurako begi honek!. Euskera batuan mangoliño horri *ziba* esaten zako, eta erderaz ere, beste askoren artian, izen hori daka: *peonza*. Baiña guk ez genduan batzen mangoliñua, guk operkulu eder haura nahi izaten genduan. Erderaz, "ojo de Santa Lucía" eta "orejilla" esaten dixue. Oso estimatua izan da apaingarrixak egitxeko (lepokuak, belarritxakuak, eraztunak...), eta toki askotan, horrezaz gaiñera, begizkuaren kontrakotzat jo izan da, baitxa buruko miñaren kontrakotzat ere. Batek baiño gehixok poltsikuan eruaten deu, zorte ona eta zoriona dakarrelakuan.

Baiña horrek ez ziran hondarretik batzen genduzen gauza bakarrak. Plastikozko pinporta koloredunen billa ere ibiltzen giñan, baitxa gastautako kristal zatitxuen billa ere: zurixak, urdiñak, berdiak... Harek ziran gure altxorrak!. Eta, ezin aitxatu gabe laga adreillu puxketa harek. Txakurrak jabiari hazurra eruaten dion bezalaixe, halaixe eruaten niozen nik puxketa gorrixka harek geure amari, berak itsasora jaurtitzeko. Hola ikasi noan nik ur azpixan begixak irikitzen, igarixan jakin aurretik gaiñera!

Nahi gabe batzen genduan "erregalua" ere bazauan hondartzan: galipota. 2002. urtian, Galizia aldian, Prestige itsasontzixaren istripu "beltz" hartatik hona, *txapapote* hitza zabaldu eta erdi ezkutuan laga zoan geure-geuria zan *galipota*. Ez zan betere erreza galipot haura oin azpitxik kentzia!

Itsasuak ekarritxako zenbat opari!!! Txokuen hazurrak (txibixa-hazurrak), arbola-azal pusketak, luzera eta itxura guztietako paluak, sokak, kortxuak...



GOTZON ARRANDEGIA
Ondo pasa Malen jaixak!
Gotzon Eizagirre
Felix Txurruka, 2 - Tfnoa:943 60 46 02 / 943 60 36 59

OKINDEGIA
GREGORIO AZKUE
POTERO
DENDA.....943603643
OKINDEGIA.943604512

Askok txokuen hazur harek txorixari kaixolan jartzeko ibiltzen zitxuen, baiña guk barkutzat ibiltzen genduzen, baitxa arbola-azal pusketa marroi-marroiak ere; harei erdixan palua jarri eta, bela eta guzti, haitzetako putzu artian txapelketak egitxen genduzen, zeiñena lehelen aillegatu. Lapekin ere bai, baiña ur bariaguak bihar ziran hortarako.

Baiña, itsasuak ekarri bakarrik ez, eraman ere egin izan deu... pertsona bat baiño gehixo. Eta, umetan, askotan gogoratzen ziguen itsasuarekin ez zauala olgatzerik. Errespetuz begiratzen giñon danbor atzian, sortzen zan korrentiari.

Haitzetan, bizitza borborka

Baiña bazauan gauza bat benetan erakartzen genduzena: itsasbeheran bistatzen ziran haitzak. Haura zan gure paradisua! Haitz beltzak, lapa txikixek zuritxutako haitz latzak, hamaika kolore eta formatako algek apaindutako haitz txirristakorrak...

Haitz artian katiautako pitxa zatixak hartu eta muturrian lapia ondo lotuta potzuetara hurreratzen giñan. Paretako kamarro beltzak, kamarro bizardunak, izkirak... harek ez zauken bakerik geurekin.

Baiña kontuz ibilli bihar izaten genduan zopaberu eta itsas lakatzekin. *Zopaberua*; izen hori ezin ederragua iruditxu izan zat beti: zopa berua, fideo-zopa itxura hartuko zixuen sasoi bateko mutrikuarrek itsas anemonari. Baiña zapaldu ezkero, itsasoko harek bai erre!! Lihorrekuek gaztaiña-lakatza ezagutzen deue aurrena, eta itsasokua hurrena. Itsasokumiek alderantziz ikasi genduan. Eta maria bizixak zozenian... izarrak billatzera!

Aparijo txikixa eruaten hasi giñanian, karnatatzat izkiria edo mangoliñua jarritxa andramostruak harrapatzen genduzen. Halaixe esaten giñon, *andramostruak*. Nik, behinik behin, pentsaten noan andra+monstruo alkartzetik sortutako hitza zala, harik eta halako baten maiñelen bati "ondramustu(a)" entzun nion arte. Orduan ulertu noan, hondar+mustu(a) zala. Ondarruan *mustu* esaten dixue. Andramostruak nahi genduzen guk, ezkatadunak. Izan ere, tartian, xapitak ere heltzen zixuen amuari, baiña harek ez ziran jaten. Halaixe bereizten genduzen: ez zaken ezkatarik. Holakuetan, berriz ere ez harrapatzeko, aldameneko potzuren batera botatzen genduzen. Andramostro harek poz-pozik eruaten genduzen etxera, illuntzian prikitxuta jateko. Arrain zurixa eta gozua bai, baiña ez ziranez oso haundixak, mamiñ gitxi. Bakarrik pentsauta geure amak zenbat lan hartzen zoan arrain txiki harek garbitzen...

Esparbelarekin ere abillezia berezixa gendukan, txiki-txiki egindako lapak eta mangoliñuak jarritxa izkirak, kamarruak noiz hurreratu egoten giñan. Hantxe ikasi genduan zer zan pazientzia eukitzia. Kabixauak ez genduzen hain errez harrapatzen, baiña ahalegindu behintzat ahalegintzen giñan.

Soiñuak ez dakadaz ahaztutzeko: kalatxorixen txillixuak, Burumendi azpixan fosillak ateratzen jarduten zeuenen trintxak ateratakuak, olatuek ekarritxako eta eruandako hondar eta harrixek sortutakuak. Ikusitxakuak ere goguan dakadaz: parian, Kristozulo misteriotsua, itsaso zabal amaigabia, katxopak, barkuen uberak... Eta usaiñak? Algen eta kresalaren usaiñak dana hartzen zoan.

Hondartzak, aukeran

Edonora juanda ere mutrikuarrek, harro, herriko hondartzen berri ematen zeuen: Lehelengo hondartza, Bigarren hondartza, Burumendi atzeko Hirugarren hondartza, Zazpi hondartzak, Saturraran eta Ondarbeltz. Ez da denbora asko jakin detela, orain dala 70 urte arte Mutrikuk hondarrezko bi hondartza baiño ez zakazela: Saturraran eta Ondarbeltz. Itxura danez, 1948. urte inguruan draga batek (Hijos de Mancisidor) Ondarruako portua eta errixoko ahua dragatu eta hondar eta harri harek Mutriku parian bota zitxuan, Leizarren azpixan. Gero, itsasuak hondarra itsasertzera ekarri eta hondartzak sortu ziran. Lehelengo "Hirugarren hondartza" eta gero bestiak. Hara hor!

Pedro Fernandez madriltxarrak hola azaldu zoan, "*La Época*" egunkarixan, 1860ko abuztuan Mutrikun bizi izan zoan girua: "*cuando el forastero pregunta por el punto donde la gente se baña, le indican un estrecho, un profundo arrecife en lugar de playa, en el cual no hay barracas ni ninguna de las comodidades que el refinamiento moderno ha introducido en otras partes en sitios semejantes*".

Gerora ere, Danbor atzeko Lehelengo eta Bigarren hondartzetako hondarra juan-etorrixan ibiltzen zan. Neguan itsasuak eraman egitxen zoan, eta udaberrirako berriz ere ekarri.

Itsasoko baiñuak

Sasoi baten Mutrikuko umiak, eta ez hain umiak, Danbor atzian ez, Intxirri txikixan baiñatzen ziran jeneralian. Eta, jakiña, bertan ikasten zeuen igarixan. Hortarako, saretako kortxuak gerrixari amarratzen zitxuen eta mollaraiñoko sokia lotuta zamela, hantxe plisti-plasta. Baten batek sokatik tira eginda Eziñaberastuneko etxe aurreko eskailleretara hurreratzen zitxuan kortxodun ikasle harek. Esan digue Montserrat Burgaña Belaustegi (1916-1986) andra borondatetsuak jente askori erakutsi ziola igarixan: portuko umiei eta kanpoko jentiari (madriltxarrak-eta). 1963. urtian, barruko mollia kendu zanian, eskaillera harek ere kendu ziran, bertan harribotiak jarri ziran-eta.

Intxirrixan, Moillazahar eta Kofraixako moilla bitxartian, bazan toki bat urak sakonera haundixagua zakana, eta itsasbeheretan ere ez zana gelditzen urik gabe: *Zingiria* edo *Potzotxua*. Hara, edonoiz egin zeiken salto, batere arriskurik gabe.

Eleizan bederatziurrenak dozen bezela, sasoi baten ohitxueria zauan "bederatzi baiñu" hartzeko. Baiña ez edonoiz e!, bederatzi egun jarraixan hartu bihar ziran baiñu harek, udazken hasieran. "*San Migeleko mariak*" esaten zixuen. Osasunerako oso onak ei ziran orduan hartutako baiñuak. Danbor aldian hartzen ziran baiñu harek, arranplan batez ere.

Hondartzetara gauza askotarako juan zeiken, ez bakarrik eguzkixa hartzera, baiñatzera edo olgatzera. Batzuk, itsasuak ekarritxako egurrak batzera hurreratzen ziran, sikatzen utzi eta etxeko beheko su eta ekonomiketan erabiltzeko. Neguan ere hondartzatik hartutako harek ematen zixuen berotasuna...

Josu Larrañaga Arrieta





GUDARIAK DIRELAKO AMNISTIA

Euskal Herria bi estaturen gatibu delako murgildu ginen borrokan, independentziaren eta sozialismoaren aldeko borrokan eta hain zuzen ere horregatik erori ginen preso batzuk, erbestera jo behar izan zuten beste batzuek eta gure artean egon ezin diren beste batzuek bizia eman zuten. Ezin ukatu prezio altua ordaindu dugula eta hala ere ez gara damutzen, denok egin dugu berdinaren alde borroka eta denak askatu arte, guztiak sentituko gara preso.

1975. urtean kokatu dezakegu Amnistiaren aldeko Batzordeen sorrera, Euskal preso politikoen amnistia lortzeko helburuarekin. Amnistiaren Aldeko Batzordeak bilakaera politiko eta errepresiboaren arabera garatuko ziren. Amnistia aldarrikatzeaz gain, eta amnistia gatazka eragiten duen egoera politikoa gainditzea ulertuta, bere gain hartuko zituen atxilotuei, preso eta iheslariei laguntza ematea (politikoa, juridikoa, ekonomikoa…) Lan etengabean.

AABek herri-mobilizazio ugari antolatu zituzten. Amnistiaren aldeko asteak edo Askatasunaren abialdia izan ziren nabarmenenak, Guardia Zibilaren eta Espainiako poliziaren jazarpen eta errepresioa basatia izan arren, milaka lagun atera ziren kalera.

1977an helduko zen sasi Amnistia, ez zen Amnistia orokorra izan baina preso politikoen kaleratzeak egon ziren. Herria konturatu zen ez zela hura herriak borrokatu zuen Amnistiaren orokorra eta AABak aurrera jarraitu zuten. Denborarekin, Amnistia mamitzen joan ginen gatazka eragin eta ondorioak gainditzeko kontzeptuetan.

Tortura eguneroko ogia genuen, astero egoten ziren atxiloketak, jendea haserre zegoen eta AABek hori guztia bideratzeko esparrua eskaintzen zuten. Aintzat-hartze soziala irabazia zuen mugimenduak, herri mugimendua bizia zegoen eta indartsu, amnistiaren alde borrokatzen genuen.

Gerora etorriko zen estatuaren aldetik gu epaitzeko nahia, eta neurrira eraikitako epaitegietara eraman gintuzten. AABek orduan ere erakutsi zuten zer nolako indarra genuen eta gu epaitzeko onartzen ez genuen epaileen aurrean, gure defentsara ukatu ginen eta harro adierazi genuen herri honen alde eta herri honetako errepresaliatu politikoen alde egindako lanaz harro ginela, bide horretan jarraituko genuela argi erakutsiz.

Bizi-zikloak eta ziklo errepresiboak bere horretan jarraitzen dute, alabaina, askoz ere okerrago dauden bizpahiru gudari ditugu, eta badirudi hemen ez dela ia ezer gertatzen. Sumindu egiten gaitu pentsatzeak Euskal gizartea ohituta dagoela Espainiak eta Frantziak egiten diguten zapalketarekin. Ohitu al gara gure gudariak txakurrak bezala hiltzen ikustera espainiar eta frantses zuloetan? Ibon, Oier, Aitzol (eta beste batzuk) pentsatu dezakegun egoera fisikorik okerrenean daude.

Kartzelan ia 400 preso politiko ditugu, ihesean eta deportatuta daudenak ezin konta, eta oraindik epaiketa pilo bat gelditzen dira. Errepresio hau pairatzen duten pertsona guztiek momentu jakin batean erabaki zuten euren ongizate pertsonalari baino garrantzi handiagoa emango ziotela borrokari, horrek dakartzan arriskuekin. Inork ez dezala gaizki ulertu esan nahi dena, ondo baitakigu militanteok ez garela sentimendurik gabeko robotak, beldurra, mina, tristura eta beste hainbat sentsazio sufritzen duten pertsonak baizik. Baina orduan zintzoak izan gaitezen geure buruekin eta ez dezagun tranparik egin. Dituen koste altuak direla-eta borroka egitea merezi ez duela ondorioztatzen badugu, orduan bai, logikoa izango da errepresioa desaktibatzeko eta bakoitza ahalik eta lasterren bere etxean egon ahal izateko beharrezkoa den guztia egitea eta borroka bigarren plano batean uztea, ondorio politikoak direnak direla, baina hori gerra galdu duen eta borrokara inoiz itzuli nahi ez duenaren ikuspuntutik baino ezin daiteke egin.

Azken alegaziora iritzita, Amnistiaren aldeko borrokak herri oso bati eragiten dio eta oso bereziki gazteriari. Amnistiaren aldarrikapena Euskal Herrian zer gertatu den eta gatazkaren erroak non dauden identifikatzeko lanabes ezin hobea izateaz gain, gure herriari askatasunaren bidea irekiko dion borrokak behar duen oxigenoa da. Horregatik, Gudariak direlako, Amnistia!!

ESPETXEAN DAUDENEI IDAZTEKO

Agurtzane Delgado
Centro Penitenciario
Ctra comarcal 220. Km 6.
Apdo. 2062
18220 Albolote (8 km norte).

Irantzu Gallastegi
Centro Penitenciario
Ctra. Ribera s/n
21610 Huelva

Lexuri Gallastegi
Centro penitenciario
Ctra. Cuevas-Úbeda Km 2,5
04030 El Acebuche

Orkatz Gallastegi
Centro penitenciario
Ctra. Alcora km 10
12006 Castelló

AMNISTIAREN ALDEKO TALDEA
J.B. 15.346.414-D

Ondo pasa Malenak!!
Joseba Iñaki Eleizgarai
masajista eta osteopatia
Tel: 630 788 059 - Konte kalea 22, Mutriku

ANSORREGI
oinetakoak
erdiko kalea 9
mutriku
943 60 33 42
agerretxo@gmail.com

orain presoak

Une berri baten aurrean gaude. Maiatzean konponbidearen aldeko aurrera pausu berri bat eman da. Saretik urrats honi dagokion garrantzia eman behar zaiola uste dugu eta ireki den aukera berria orain artean gure aldarri eta helburu izan diren giza eskubideen defentsa, konponbidea eta bakea behin betikoz eskuratzeko probestea.

Irekitako aukera berri honen aurrean, ulertezina da oraindik orain, hainbat herritarren giza eskubideak urratuak izaten jarraitzea. Baina hala da, izan ere, euskal presoek bizi duten salbuespen egoera bere horretan mantentzeko hautuak, giza eskubideen urraketan sakontzea baino ez dakar.

Gero eta gehiago gara espetxe politika honek aldaketak behar dituela pentsatzen dugunak, pixkanaka-pixkanaka aldaketaren aldeko ahotsak handitzen doaz. eta geroz eta gehiago eta anitzagoak dira espetxe politika bat aldatzea eskatzen duten ahotsak. Euskal jendartearen gehiengoak argi du, orain ahots guzti horiek aktibatzea izango da gure apustua.

Bide horretatik, iparraldetik, iritsi zaigu lan egiteko era eta ilusio berri bat. Gizarte zibilak armagabetzea eta disoluzioa ahalbidetu ditu eta egun Frantzian aurkitzen diren euskal presoen baldintzak aldatzen hasi daitezen ere lortu du. Hau, jendarte osoaren parte hartzearekin bakarrik izan da posible.

Eta bide hori jarraitu nahi dugu hemen ere, aurreko maiatzaren 3aren ondotik, presoen auziari aterabide bat emateko unean gaude, eta horretarako gizarte zibilaren parte hartzea beharrezkoa da, gizarte zibilaren unea da.

Guztiak hemen ez egon arren, gaur hemen, gizarte zibila ordezka dezakeen norbanakoen talde bat bildu da. Gizarte zibilaren garaia delako, eta SAREk, gizarte zibilarekin batera aktibaziora jotzen duelako.

Beraz, beraiena da hitza.

Oraindik bada, ordea, sufrimendua sortzen jarraitzen duen auzi bat, askatu beharreko korapilo bat. Hain zuzen ere, gaur hemen batu gaituena. Egun, jadanik ETAk existitzeari utzi dion arren, 279 euskal preso daude euren senideengandik ehunka edo milaka kilometrora urrunduak. Espetxean dauden pertsona hauek euren eskubideen jabe izan arren, oraindik ere salbuespen- neurriak ezartzen zaizkie, Espainiako zein Europako legedien aurka doazenak, eta, presoa ez ezik, senideak, bereziki haurrak eta adin nagusiko pertsonak ere zigortzen dituztenak.

Bakean eta adiskidetuta bizi den jendarte batekin amesten dugunok giza eskubideen errespetuak batzen gaitu. Zentzu honetan, egungo espetxe-politika aldatzea ezinbestekotzat jotzen dugu, eta horretarako behar beharrezkoa da guztion bultzada eta konpromisoa.

Lau lehentasun hauek dira, bereziki, lehen bait lehen konpondu beharrekoak:

- Urruntzea. Asteburu oroz ehunka senide ehunka kilometro egitera behartzen dituena.
- Larriki gaixo dauden presoak. Egun gutxiko bizia geratu aurretik, gaixorik dauden presoek behar bezala artatzeko eskubidea dute, hemen eta orain.
- Europako Legediak dioen moduan, bi estatutako zigorren batuketaren aplikazioa.
- Lehen Graduen aldaketa. Euskal presoek, lehen graduan betetzen dute zigorraren %100, eta hori legearen kontra doa.

Espetxe-politika hau iraganean kateatuta dago eta ezohiko lege batean oinarritzen da. Korapiloak askatzeko unea da. ORAIN. Elkarbizitzarako unea. Urteetan sortutako gizarte-arrakalak elkarrekin sendatzeko unea. Batu ezin izan garenok batzeko unea da. Orain presoen auzia konpontzeko unea da.

ORAIN PRESOAK dinamika jarri dugu martxan, eta guztioi dei egiten dizuegu, gure ametsarekin bat egiten baduzue, urriaren 20rako antolatzen ari garen manifestazioa herri honetan inoiz izan den mobilizaziorik handiena bilakatzen laguntzera.

Uzuri
RPS 183/12
ELGOIBAR - DEBA
optika audio
DEBA, Ostolaza 7 - Tel. 943 19 21 92
ELGOIBAR, San Frantzisko 21 - Tel. 943740359





MARKEL

Mutrikutik Ondarrura zorionak eta matxo estu bat zuretzat.



LUIS MARI

Malen egunian badakau zer ospatu eta atera txanpaina! Zorionak zuri!



AIMAR eta ARATZ

Zorionak! Etxeko guztion partez milaka muxu eta besarkada! Maite zaituztegu!



UGAITZ eta IRAIA

Zorionakkkkk bikote! Muxu handi bat etxeko guztien partez eta bereziki Enaitz eta Alizen partes. Ondo pasa oporrak!



MARI CARMEN "OKON"

Etxeko denon partetik, eutsi goiari danak etxera ekarri arte!



IRAIDE

Zorionak etxeko sorgintxoari 3 urte betetzean! Amona Maitek, osaba Anderrek eta izeko Aiorak.



MAREN

Zorionak etxeko danon partez, batez ere anaia Hodeik!



IXONE

Zorionak Ixone!!! Matxo haundi bat danon partez!!!



LAIA

Zorionak politta! Ondo-ondo pasa eta matxo haundi bat!



NAHIA eta AITOR

Zorionak bikote! 11 urte beteko duzuelako, hamaika muxu Potolo etxekoen partez.



LOREA eta ESTRELLA

Zorionak abuztuaren 9an urteak beteko dituzuelako!



HODEI

Zorionak etxeko danon partez!Ondo pasatu zure eguna!



MADDI

Zorionak eta muxu erraldoiak Intza eta denon partez. Uztailaren 26an 7 urte haundi!



XABAT

Zorionak rubio! 7 urte haundi... iujuuu!
Segi holaxe!!




MARIA LUISA

101 arrazoi daukagulako zuri zorionak emateko,
Zorionak zuri!
Zorionak 101 bider!

ZORIONTZEKO MODUAK

E-POSTA
kalaputxi2001@gmail.com
aldizkaria@kalaputxi.eus
WHATSAPP
635748393
ESKURA
ANSORREGI ZAPATA-DENDA
BUZOIAN
LUARDO BEHEAN

Argazki Zaharrak



▲▲
1978 urteko abuztuan, Caja de Ahorros Probintzialak Aizabia Elkarteari emandako zodiakean
Xabier Manterola, Antxon Amado, Juanjo Eizagirre eta Dani Mujika.



▶▶
1958 aldera Mutrikuko hondartzan
Julene Barrenetxea *"Kilkerra"*, Itziar Flores *"Goixerri"*, Pilar Campos *"Juana Castellanianekua"*, Arantxa Barrenetxea *"Kilkerra"*, Ramonita Osa *"Beltxior"* eta Mari Campos *"Juana Castellanianekua"*.



◀◀
TXARANGA 1960ko hamarkada bukaeran
Tente: J.M. Ruiz-Poveda *"Traperito"*, Kosme Txurruka, Jose Antonio Andonegi, Carlos Barrenetxea *"Erronda"*, Joxe Migel Txurruka, Agustin Arrieta, Pedro Soto, Jenaro Zelaia *"Axal"*.
Kukulumutxu: Hilario Iturrino, Inaxio Goiogana *"Saltsas"*, Bitoriano Galparsoro *"Katxas"*, Ricardo Garagarza *"Pelayo"* Jesus Mari Zabala *"Potxolo"*.
Jarrita: Juan Mari *"Pelayo"*, Jose Ramon Lekube eta Xabier Manterola *"Montserrat"*.

www.kalaputxi.eus/botikak

ZAINTZAKO BOTIKAK

(gaueko 10ak arte)

UZTAILA

20tik 22ra	Amaia Zalduegi
zapatu (21) goizean, Lasuen-Elezgarai	
23etik 26ra	Lon Apraiz
27tik 29ra	Lasuen-Elezgarai
30 eta 31	Amaia Zalduegi

Gauetan, egunero (22:00-00:00):
Pilar Etxeberria Botika
Errosario kalea 26, Elgoibar

Gauetan, egunero (22:00-09:00):
Idoia Lafuente Botika
Sostoatarren kalea 10, Eibar

ABUZTUA

1 eta 2	Amaia Zalduegi
3tik 5era	Hiart Burgoa
zapatu (4) goizean, Lon Apraiz	
6tik 9ra	Lasuen Elezgarai
10etik 12ra	Lon Apraiz
13tik 16ra	Hiart Burgoa
17tik 19ra	Amaia Zalduegi
zapatu (18) goizean, Lasuen-Elezgarai	
20tik 23ra	Lon Apraiz
24tik 26ra	Lasuen-Elezgarai
27tik 30era	Amaia Zalduegi
31	Hiart Burgoa

IRAILA

1 eta 2	Hiart Burgoa
zapatu (1) goizean, Lon Apraiz	
3tik 6ra	Lasuen-Elezgarai
7tik 9ra	Lon Apraiz
10etik 13ra	Hiart Burgoa
14tik 16ra	Amaia Zalduegi
apatu (15) goizean, Lasuen-Elezgarai	
17tik 20ra	Lon Apraiz

MENDI IRTEERAK

irailak 9
Ortzaize - Haltzamendi (813 m) -
- Baigura (1.474 m) - Heleta

urriak 14
La Leze - Olano (1082 m) -
- Arbarrain (1.118 m) - Otzaurte

azaroak 18
Araia - Aratz (1.445 m) - Arantzazu

abenduak 2
Ondarroa inguruetan zeharkaldia
eta bazkaria

Burumendi Mendi Elkartea

ODOLA EMATEA

abuztuak 10, 18:00etan
anbulatorioan

Gipuzkoako Odol Emaileak

egitarauak eta deialdiak: **aldizkaria@kalaputxi.eus** edota **whatsappa 635748393**

AGENDA

abuztuak 2, eguena
Zinea kalean
Zabielen, 22:00etan
Batman Lego, pelikula

abuztuak 4, zapatua
KALAKAN
Goiko plazan, 22:30etan

abuztuak 9, eguena
Zinea kalean
Zabielen, 22:00etan
Doraemon eta Nobita Holmes

abuztuak 11, zapatua
Melissa & The Jacks
Goiko plazan, 22:30etan

abuztuak 15, eguaztena
Zaharren eguna

abuztuak 16, eguena
Zinea kalean
Zabielen, 22:00etan
La Bella y la Bestia

abuztuak 19, domeka
Hondarrezko eskulturak
Hondartzan, 16:00etan

abuztuak 22, eguaztena
Kantu-Kontari
Zabiel plazan, 18:00etan

Kamara kontzertua
Komenduan, 19:00etan

abuztuak 23, eguena
Zinea kalean
Zabielen, 22:00etan
Coco

abuztuak 24, barixakua
Organo kontzertua
Parrokian, 20:00etan

abuztuak 30, eguena
Zinea kalean
Zabielen, 22:00etan

elkartearen ekitaldiak iragarri nahi badituzue, hemen txokoa
aldizkaria@kalaputxi.eus

www.kalaputxi.eus/agenda

ERDIKO
Merzeria
Kinkilak, azpiko arropak, hariak, artilea...
Malen jai zoriontsuak opa dizkizue
Erdiko kale 12 - Tel. 665 715 039

TXIKO BAR MUTRIKU
Tel. 943 60 40 02
Bokatak
Hanburgesak
Sandwichak
Pintxo morunoak
...eta nahi duzuna
Ondo pasa Malen jaixak!


apain
tratamendu erreduzitzailea
zelulitisa gutxitzeko tratamendua
anti-age tratamendua
radiofrekuentzia
bitaminen tratamenduak
osteopatia
dena bonu bitartez
indiba
fisioterapia
laserra
mikropigmentazioa
kriolipolisis
presoterapia
drainatze linfatikoa
estetika onkologikoa
abangoardiako kosmetika
domingo ibaibarriaga, 3 behea - 943 60 42 29 - 608 684 416 - apain@apain.net



MUTRIKU

MALEN JAIAK

2018 uztailaren 21etik 25era

JAIETAN ERE BELDUR BARIK #JARRERA

beldurbarik.org

Mutrikuko Udala